

GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK, 2015EKO MARTXOAREN 10EAN LEHENENGO DEIALDIAN, EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.	ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 10 DE MARZO DE 2015.
<u>BERTARATUAK</u>	<u>ASISTENTES</u>
<u>LEHENDAKARIA</u>	<u>PRESIDENTE</u>

Imanol Landa Jauregi jn.

<u>BATZARKIDEAK</u>	<u>VOCALÉS</u>
----------------------------	-----------------------

Keltse Eiguren Alberdi and.
Koldo Iturbe Mendilibar jn.
Joseba Arregi Martínez jn.
Ana Helguera Líbano and.
Elena Coria Yanguas and.
Josu Loroño Goienetxe jn.

<u>IDAZKARI DIHARDUENA</u>	<u>SECRETARIA ACCTAL.</u>
-----------------------------------	----------------------------------

Ana M^a Cillero Ruiz, and.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamabosteko martxoaren hamarrean, Imanol Landa Jauregi alkate jauna bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotzietz gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

Alkateak, legeak eskatzen duen kidekopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a diez de marzo de dos mil quince, y bajo la presidencia del Sr. Alcalde, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

83.- 2015EKO MARTXOAREN 3AN
EGINDAKO OHIKO BILERAKO
AKTA ONESTEIA.

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2015eko martxoaren 3ko bilerakoa, hain zuzen.

OGASUNA, KONTUAK,
EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA
BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA
EUSKARA

84.- GETXO ANTZOKIA
ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN
PRESTAKETA ETA OBRAKO
ZUZENDARITZA EGIKARITZEKO
KONTRATUA ALDARAZTEKO
ESPEDIENTEIA HASTEIA.

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: ALGORTAN
(GETXO), BASAGOITI
ETORBIDEAREN ETA ETXEANDIA
APEZPIKUAREN KALEAREN
ARTEAN, GETXO ANTZOKIAREN
ERAIKUNTZA PROIEKTUA
IDAZTEKO ETA OBRA
ZUZENDARITZA EGITEKO
aholkularitza eta laguntza kontratuaren
aldaketa onesteko eta espedienteia
hasteko baimena ematea. Gaur egun,
adjudikazioduna "LMURIARTE
ARKITETURA, S.L.P." da, IFK:
B01482736.

Getxo Antzoki berria eraikitze
ko proiektua idazten duen eta obra
zuzentzen duen arkitektoaren
ordainsaria berrikustetik dator

83.- APROBACIÓN DEL ACTA DE
LA ANTERIOR SESIÓN
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 3
DE MARZO DE 2015.

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 3 de marzo de 2015.

HACIENDA, CUENTAS,
PROMOCIÓN ECONÓMICA,
RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD
Y EUSKERA

84.- INCIO DEL EXPEDIENTE PARA
LA MODIFICACIÓN DEL
CONTRATO PARA LA REDACCIÓN
DEL PROYECTO EDIFICATORIO Y
DIRECCIÓN DE OBRAS DEL
GETXO ANTZOKIA.

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

PRIMERO: Autorizar el inicio del expediente y aprobar la modificación del contrato de Consultoría y Asistencia para la REDACCION DEL PROYECTO EDIFICATORIO Y DIRECCION DE OBRAS DEL GETXO ANTZOKIA, SITIO ENTRE BASAGOITI ETORBIDEA Y OBISPO ETXEANDIA KALEA EN ALGORTA - GETXO, cuyo adjudicatario actual es la entidad "LMURIARTE ARKITETURA, S.L.P.", con C.I.F. nºB01482736.

La modificación propuesta deriva de la revisión que ha de hacerse de los honorarios del arquitecto redactor del proyecto y director de la obra de

proposatutako aldaketa. Zehazki, kontratuaren adjudikazioaren zenbatekoa gehitu behar da, 494.298,33 eurotan, gehi BEZ (103.802,65 €). Hau da, guztira, 598.100,98 €.

BIGARRENA: Proposatu den kontratu gehikuntzatik datorren udal gastua baimentzea, 598.100,98 eurotan.

HIRUGARRENA: Erabaki hau adjudikaziodunari jakinaraziko zaio, HAMABOST EGUNEKO epean (jakinarazpena jasotzen denetik) kontratuaren behin betiko bermea egokitu dezan, 23.924,04 eurotan gehituz.

Gero, kontratu-agiri egokia formalizatu beharko da.

85.- ROMOKO KULTURAKO ETXEA ERAIKITZEKO PROIEKTUA ONETSI (2B FASEA: EGOKITZAPENA), OBRAK ESLEITZEKO ESPEDIENTEA HASI, BALINTZA-AGIRIAK ONETSI ETA GASTUA EGITEA BAIMENTZEA.

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: ROMOKO KULTUR ETXEA ERAIKINAREN PROIEKTUA, 2B FASEA (EGOKITZAPENA), onestea. Proiektua MECSA, S.A. & ESTUDIO TORRE ELORDUY AEBak idatzi du eta memoriak, planoak, baldintza pleguak eta aurrekontua dauzka barruan. Gehieneko prezioa 2.430.976'04 eurokoa da, BEZ barne. Iraupena 49

construcción del nuevo Getxo Antzokia, y supone una ampliación del importe de adjudicación del contrato de 494.298,33 € más su correspondiente I.V.A. de 103.802,65€, lo cuál suma un total de 598.100,98 €.

SEGUNDO: Autorizar el gasto municipal derivado de la ampliación contractual planteada, por importe de 598.100,98 €.

TERCERO: Notificar este acuerdo al adjudicatario, a efectos de que en el plazo de QUINCE DIAS NATURALES, a partir del recibo de la notificación, proceda a reajustar la Garantía Definitiva del contrato, incrementándola en la cantidad de 23.924,04 euros.

Posteriormente se deberá formalizar el correspondiente documento contractual.

85.- APROBACIÓN DEL PROYECTO DEL EDIFICIO KULTUR ETXEA DE ROMO, FASE 2B (ACONDICIONAMIENTO), INICIAR EL EXPEDIENTE PARA LA ADJUDICACIÓN DE LAS OBRAS, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

PRIMERO: Aprobar el PROYECTO DEL EDIFICIO KULTUR-ETXEA DE ROMO- FASE 2B (ACONDICIONAMIENTO), redactado por la U.T.E. MECSA, S.A. & ESTUDIO TORRE ELORDUY, comprensivo de Memoria, Planos, Pliegos de Condiciones y Presupuesto por importe máximo de 2.430.976'04 euros, I.V.A.

astekoa izango da gehienez, obraren zuinketa egiaztatzen denetik aurrera zenbatuta.

BIGARRENA: Administrazio-kontratazioa zuzendu behar duten administrazio-baldintza zehatzen eta baldintza teknikoaren agiriak onartzea.

HIRUGARRENA: Lehiaketa deituko da, prozedura irekiaren bidez, aipatutako obrak adjudikatzeko.

LAUGARRENA: Kontratazio horrek dakartzan betebeharreri aurre egiteko behar den gastua baimenduko da, 2.430.976'04 eurotan.

incluido, siendo su plazo de duración de 49 semanas como máximo, a contar desde que se realice la comprobación del replanteo de la obra.

SEGUNDO: Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

TERCERO: Convocar concurso, por el Procedimiento Abierto, para la adjudicación de las referidas obras.

CUARTO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación de referencia, por importe de 2.430.976'04 euros.

86.- AREETA AUZOKO ETA GOBELBIDE, GOBELOKI ETA ETXEZURI KALEETAKO UDAL SANEAMENDUKO SAREAREN INBENTARIOA PRESTATZEKO ZERBITZUA ESLEITZEA.

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

AURREKARIAK
LEHENENGOA.- Tokiko Gobernu Batzarrak 2014-10-21eko bileran hartu zuen 377. erabakiaren bitartez, **AREETAKO ETA GOBELBIDE, GOBELOKI ETA ETXEZURI KALEETAKO UDAL SANEAMENDU SAREAREN INBENTARIOA IDAZTEKO ZERBITZUA** adjudikatzeko izapidea hasi zen.

Erabaki hartan, era berean, prozedura irekiaren bidezko administrazio

86.- ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE REDACCIÓN DEL INVENTARIO DE LA RED DE SANEAMIENTO MUNICIPAL DE LAS ARENAS Y DE LAS CALLES GOBELBIDE, GOBELOKI Y ETXEZURI.

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

ANTECEDENTES DE HECHO
PRIMERO.- Por Acuerdo nº 377 adoptado por la Junta de Gobierno Local en sesión de fecha 21/10/2014, se inició la tramitación para la adjudicación del **SERVICIO DE REDACCIÓN DEL INVENTARIO DE LA RED DE SANEAMIENTO MUNICIPAL DE LAS ARENAS Y DE LAS CALLES GOBELBIDE, GOBELOKI Y ETXEZURI.**

En dicho acuerdo se aprobaron igualmente los Pliegos de Cláusulas

kontratazioa eraendu behar duten administrazio klausula berezi eta teknikoen pleguak onetsi ziren eta lehiaketa deitu zen, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez, hornidura hori adjudikatzeko.

BIGARRENA.- Kontratu honetarako ezarri ziren ezaugarri nagusiak hauek izan ziren:

- Kontratua betetzeko epea sei hilabetekoa izango da, kontratua sinatzen den egunetik aurrera.
- Lizitazioaren aurrekontua, BEZa barne, 70.000 eurokoa izango da.
- Kontratuaren gutxi gorabeherako balioa 57.851,24 eurokoa da.

Eskaintzak baloratzeko irizpide bakarra ezarri zen, hau da, prezioa, egin beharreko lanen definizio maila altua eta beraien konplexutasun tekniko mugatua kontuan izanik.

HIRUGARRENA: 2014-10-31n lau enpresari aipatutako espediente ireki zela jakinarazi zitzaien, eta eskaintzak egiteko gonbidapena egin zitzaien; horretarako, 10 egun balioduneko epea eman zitzaien, gonbidapena jaso zen egunetik zenbatzen hasita.

Lizitazioaren epea amaitutakoan, gonbidatutako lau enpresek eskaintza aurkeztu zuten.

LAUGARRENA.- 2014-11-19an dokumentazio orokorra jasotzen zuen gutun-azala ireki zen jendaurreko ekitaldian. Aurkitutako akats eta omisioak kontuan izanik, interesdunei beraiek zuzentzeko edo ongitzeko eskatu zaie.

Ongitze epea amaitutakoan eta aurkeztutako dokumentazioa ikusita,

Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa, y se convocó concurso, por Procedimiento Negociado sin Publicidad, para la adjudicación del referido suministro.

SEGUNDO.- Las características principales que se fijaron para este contrato fueron las siguientes:

- El plazo de ejecución del contrato será de seis meses, a contar desde la fecha de la firma del contrato.
- El presupuesto de licitación, IVA incluido, sería de 70.000 euros.
- El valor estimado del contrato asciende a 57.851,24 euros.

Para la valoración de las ofertas se estableció un solo criterio, a saber, el precio, habida cuenta del alto grado de definición de las labores a realizar y su limitada complejidad técnica.

TERCERO.- Con fecha 31/10/2014 se comunica a cuatro empresas la incoación del expediente de referencia, invitándoles a presentar ofertas, concediéndoles para ello un plazo de 10 días hábiles a contar desde el recibo de la invitación.

Finalizado el plazo de licitación, presentan oferta las cuatro empresas invitadas.

CUARTO.- El día 19/11/2014 se realiza, en acto público, la apertura del sobre conteniendo la documentación general. Habida cuenta de los defectos y omisiones detectados, se procede a requerir a los interesados para que corrijan o subsanen aquéllos.

Una vez transcurrido el plazo de subsanación y a la vista de la

2014-11-24an bigarren gutun-azala ireki zen, negoziatu beharreko aldeak biltzen zituen, hau da, alde ekonomikoa. Honako hau izan da emaitza:

documentación presentada, en fecha 24/11/2014 se procede a la apertura del sobre segundo, conteniendo los aspectos a negociar, a saber, el aspecto económico, con el siguiente resultado:

LIZITATZAILEA	NEGOZIATU BEHARREKO ALDERDIAK Proposamen ekonomikoa (BEZ gabe) - Gehieneko prezioa: 57.851,24 €-.
LICITADOR	ASPECTOS SUJETOS A NEGOCIACIÓN Proposición económica (SIN IVA) - Precio máximo 57.851,24 €-.
TOPOGRAFÍA CADAGUA	57.500 €
INFOTOP S.L.	57.000 €
GABINETE TECNICO TOPOGRAFICO S.L.	57.300 €
ININFOR	55.051,24 €

Klausula ekonomiko-administratiboen agiriaren 21. idatz-zatian aurreikusitako negoziatio-izapiderearen jarraipen gisa, 2014-11-24an arestian aipatu diren lizitatzaillei jakinarazi zitzaizkien bi laneguneko epea zeukatela egokitzen joz gero kontraeskaintza ekonomikoa aurkezteko.

Como continuación del trámite de negociación previsto en el apartado 21 del pliego de cláusulas económico-administrativas, el día 24/11/2014 se comunica a los licitadores antedichos que disponen de dos días laborables para presentar, si lo consideran oportuno, contraoferta económica.

BOSGARRENA.- Kontraeskaintzak aurkezteko aurreikusitako epea amaitutakoan, enpresa lizitatzailleetako bik kontraeskaintzak aurkeztu zituzten. Eskaintza ekonomikoen azken emaitza hau izan zen:

QUINTO.- Finalizado el plazo previsto para la presentación de contraofertas, presentan contraoferta dos de las empresas licitadoras, quedando el resultado final de las ofertas económicas como sigue:

ENPRESA	PROPOSAMEN EKONOMIKOA (BEZ GABE)
EMPRESA	PROPOSICIÓN ECONÓMICA (SIN IVA)
TOPOGRAFIA CADAGUA SL	57.500,00 €
INFOTOP, S.L.	51.900,00.-€
GABINETE TECNICO TOPOGRAFICO SL	57.300,00 €
ININFOR TOPOGRAFIA Y GIS	37.500,00.-€

SEIGARRENA.- Azpiegitura eta Zerbitzuetako arduradunak 2014-12-09an egindako txostenaren bidez,

SEXTO.- Mediante informe emitido por el Responsable de Infraestructura y Servicios en fecha 9/12/2014 se

zehaztu zen eskaintzarik merkeenak, hau da, Ininfor enpresarenak, balio anormalak edo neurrigabekoak dauzkala. Beraz, legearen arabera jokatu zen, hau da, entzunaldia eman zitzaion bere eskaintza justifikatzeko.

Enpresak aipatutako justifikazioa epe eta forma egokietan aurkeztu du.

ZAZPIGARRENA.- Azpiegitura eta Zerbitzuetako arduradunak txostena egin zuen 2014-12-19an, enpresak emandako arrazoiak ontzat emanaz. Gauzak horrela, 2015-01-19an errekerimendua egin zitzaion, SPKLTBaren 146.4 eta 151. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, hau da, legeak kontratatzeke ezartzen dituen baldintzak betetzen dituela eta 1.875 euroko behin betiko bermea eratu duela agiri bidez frogatzeko.

Aitzitik, errekerimendu hori ez zen behar bezala bete. Hain zuzen ere, Ininfor enpresak ez zuen frogatu kontratuko pleguetan exijitzen diren gutxienerako kaudimen betekizunak betetzen dituenik, ezta horretarako berariazko errekerimendua jaso arte ere.

ZORTZIGARRENA.- Gertatutakoaren ondoren, legeak agintzen duen bezala jardun zen, hau da, "Ininfor, S.L."k bere eskaintza atzera bota zuela ulertu zen, eta bigarren sailkatuari, "Infotop, S.L."ri, dokumentazio berdina aurkezteko agindu zitzaion. Errekerimendu hori 2015-02-09an egin zen. Espedientean agerrarazi zen legean kontratatzeke ezarritako baldintzak betetzen dituela frogatu zuela agirien bidez, eta baita behin

determina que la oferta más barata, es decir, la presentada por la empresa Ininfor, contiene valores anormales o desproporcionados, por lo que se procede en legal forma, es decir, concediéndole un trámite de audiencia para la justificación de su oferta.

La empresa presenta la antedicha justificación en tiempo y forma.

SÉPTIMO.- El Responsable de Infraestructura y Servicios emite informe, de fecha 19/12/2014, por el cual da por buenas las razones expuestas por la empresa. Ello así, la misma es requerida, en fecha 19/1/2015, a los efectos de lo dispuesto en los artículos 146.4 y 151 TRLCSP, es decir, para la acreditación documental del cumplimiento por su parte de las condiciones establecidas legalmente para contratar, así como de haber constituido garantía definitiva por importe de 1.875 euros.

Sin embargo no llega a cumplimentarse adecuadamente el requerimiento citado, siendo así que la empresa Ininfor no acredita el cumplimiento por su parte de los requisitos mínimos de solvencia exigidos en los pliegos contractuales ni siquiera tras ser específicamente requerido para ello.

OCTAVO.- Habida cuenta de lo acontecido, se procede en legal forma, es decir, considerando retirada la oferta de "Ininfor, S.L." y requiriendo a la segunda clasificada, "Infotop, S.L.", para la presentación de la misma documentación. Tal requerimiento se efectúa el día 9/2/2015, constando en el expediente la acreditación documental del cumplimiento por su parte de las condiciones establecidas legalmente para contratar, así como de haber

betiko bermea ere, 2.595 eurokoa, egin zuela.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (SPKLTB).

Zehazki SPKLTBEaren 152. artikulua aipatu behar da. Bertan xedatzen da nola jardun behar den baldin eta lizitazio batean aurkeztutako eskaintzekoren batek balio anormalak edo neurrigabekoak badauzka (gure kasuan gertatzen den bezalaxe).

II. Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Araudi Orokorra, SPKLTBk esaten duenaren aurka egiten ez duten alderdietan.

Zehazki araudiaren 85. artikulua aipatu behar da. Lizitazio honetan adjudikazio irizpide bakarra prezioa denez gero, artikulua hori aplikatu behar da. Beraz, hura aplikatuz, zehaztu da Ininfor enpresak aurkeztutako eskaintzak balio anormalak edo neurrigabekoak zeuzkala.

III. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako testu bategina eta hari lotuta aplikatu daitezkeen gainerako legeria.

IV. Proposatutako adjudikazioa tokiko gobernu-batzarrari dagokio, kontratazio-espeditante honetako organo eskuduna baita.

ERABAKI-PROPOSAMENA

LEHENA: Ininfor, S.L. enpresa, IFK: B-48458756, AREETAKO ETA GOBELBIDE, GOBELOKI ETA ETXEZURI KALEETAKO UDAL

constituido garantía definitiva por importe de 2.595 euros.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCSP), aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre. Merece ser citado en concreto el artículo 152 TRLCSP, el cual dispone la forma de proceder en el caso de que en una licitación se de, como en esta, la incidencia de que alguna de las ofertas presentadas contenga valores anormales o desproporcionados.

II.- Reglamento General de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre y Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, en lo que no se oponga al TRLCSP.

Se ha de citar en concreto el artículo 85 del Reglamento, aplicable al tratarse de una licitación cuyo único criterio de adjudicación es el precio, y en aplicación del cual se determinó que la oferta presentada por la empresa Ininfor contenía valores anormales o desproporcionados.

III.- Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1.986, de 18 de abril y demás legislación conexas que resulte de aplicación.

IV.- Corresponde a la Junta de Gobierno Local la adjudicación que se propone por ser el órgano de contratación competente en el presente el expediente de contratación.

PROPUESTA DE ACUERDO

PRIMERO: Excluir a la empresa Ininfor, S.L., con C.I.F. nº B-48458756 de la licitación para la adjudicación del SERVICIO DE REDACCIÓN DEL

SANEAMENDU SAREAREN
INBENTARIOA IDAZTEKO
ZERBITZUAREN adjudikaziorako
lizitaziotik baztertuko da, ez dituelako
frogatu kontrataziorako exijitzen diren
gutxieneko kaudimeneko betekizunak.

BIGARRENA: Ininfor, S.L. enpresari,
IFK: B-48458756, 2015-01-28an egin
zuen behin betiko bermea, 1.875
eurokoa, 3/2015/1/000204 eragiketa
zenbakia duena, itzuliko zaio.

HIRUGARRENA: "INFOTOP, OBRAS
Y SERVICIOS, S.L." enpresari, IFK: B-
95125365, adjudikatuko zaio
erreferentziako zerbitzua, 51.900
eurotan, gehi 10.899 €, BEZaren %
21ekoak. Beraz, adjudikazioaren
zenbateko osoa 62.799 eurokoa da. Udal
aurrekontuaren kontura egotziko da
gastua.

Kontratua betetzeko epea 6 (sei)
hilabetekoa izango da, kontratua
sinatzen den egunetik aurrera.

LAUGARRENA: Sektore Publikoko
Kontratuei buruzko Legearen testu
bateginaren 156.1 artikuluan
adierazitakoaren arabera,
adjudikaziodunak Kontratazio
Zerbitzuaren bulegoetan (helbidea:
Foruak 8) agertu beharko du kontratua
administrazio dokumentu gisa
gauzatzeko, hamabost laneguneko
gehieneko epean, ebazpen honen
jakinarazpena jasotzen denetik aurrera
zenbatu beharrekoa.

Kontratistari egotzi beharreko
arrazoiak direla medio kontratua ez
bada sinatzen, administrazioak

INVENTARIO DE LA RED DE
SANEAMIENTO MUNICIPAL DE LAS
ARENAS Y DE LAS CALLES
GOBELBIDE, GOBELOKI Y
ETXEZURI, por no haber acreditado el
cumplimiento de los requisitos
mínimos de solvencia exigidos para la
contratación.

SEGUNDO: Devolver a la empresa
Ininfor, S.L., con C.I.F. nº B-48458756, la
garantía definitiva que depositara en
fecha 28/1/2015, por importe de 1.875
euros, con el nº de operación
3/2015/1/000204

TERCERO: Adjudicar a la empresa
"INFOTOP, OBRAS Y SERVICIOS,
S.L.", con C.I.F.: B-95125365, el servicio
de referencia, por importe de 51.900
euros, más 10.899€ euros
correspondientes al I.V.A. de 21%, lo
cuál hace un importe total de
adjudicación de 62.799€, imputándose
el gasto a cargo del Presupuesto
Municipal.

El plazo de ejecución del contrato será
de 6 (seis) meses, a contar desde la
fecha de la firma del contrato.

CUARTO: La adjudicataria, de
conformidad con lo indicado en el
artículo 156.1 del TRLCSP, deberá
comparecer en las oficinas del Servicio
de Contratación, sitas en la calle Fueros
nº 8, para formalizar el contrato en
documento administrativo, en un plazo
máximo de quince días hábiles desde la
recepción de la notificación de la
presente resolución.

En el caso de falta de formalización del
contrato por causas imputables al
contratista, la Administración podrá

kontratua suntsiaraztea erabaki dezake, interesatuari entzunaldia eman ondoren, gaitz eta kalteen kalte-ordainekin.

acordar la resolución del mismo, previa audiencia del interesado, con indemnización de daños y perjuicios.

LEHENDAKARITZA ETA GIZARTE ZERBITZUAK

PRESIDENCIA Y SERVICIOS SOCIALES

87.- 2015 URTERAKO HEZKUNTZAKO GAIETARAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA ETA OINARRI-ARAUAK ONESTEIA.

87.- APROBACIÓN DE LA CONVOCATORIA Y BASES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES EN MATERIA EDUCATIVA, AÑO 2015.

Hezkuntza Zerbitzuko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki da:

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Enseñanza, se acordó:

1.- Hezkuntza arloko diru-laguntzak emateko 2015. urteko deialdia onartzea.

1º.- Aprobar la convocatoria para la concesión de subvenciones en materia educativa del año 2015.

Diru-laguntzak ondorengo puntuan aipatutako oinarri orokorren eta berariazkoen arabera emango dira.

Las ayudas se otorgarán de acuerdo con las bases generales y específicas referidas en el punto siguiente.

2.- Aipatutako deialdia arautzen duten oinarri orokorrak eta berariazkoak onartzea; oinarriok dagokion espedienteen jasotzen dira.

2º.- Aprobar las bases reguladoras generales y específicas de la referida convocatoria, las cuales figuran en el expediente de su razón.

3.- Honako deialdiaren xede diren laguntzak finantzatzera bideratutako gehienezko aurrekontu-kreditua onartzea, 64.930 euro, hain zuzen ere (HIRUROGEITA LAU MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HAMAR €).

3º.- Aprobar el crédito presupuestario máximo destinado a la financiación de las ayudas objeto de la presente convocatoria, ascendente a 64.930€ (SESENTA Y CUATRO MIL NOVECIENTOS TREINTA euros).

HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE

88.- 27.4.-SAN NIKOLAS EGIKARITZE-UNITATEA BIRZATITZEKO PROIEKTUA

88.- APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA MODIFICACIÓN DEL PROYECTO DE REPARCELACIÓN

ALDARAZITA BEHIN-BETIKO ONESTEIA.

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA.- 27.4-“San Nikolas” egikaritze unitaterako izapidetu den lurra berriro zatitzeko proiektuaren aldaketa hasierako eta behin betiko izaeraz onestea, sortu den I. lur-zati berriak daukan sestra gaineko erabilera publikoko zortasunari dagokionez. Izan ere, betearazi nahi zen Hiri Antolaketako Plan Orokorrean ez zegoen aurreikusita eta, horregatik, ez zen eratu behar izan.

Horrela, sortu den I. lur-zatiari dagokion fitxa honela geratuko litzateke:

I. LUR-ZATIA

Adjudikazioduna:

-100eko 84,2855a Promociones Etxeak, S.L.ri, IFK: B-48/872931, helbidea Leioako Negurigane kaleko 12-1 Dn duenari, adjudikatuko zaio.

Partaidetza hau, ehuneko 66,5826an, jatorrizko E.2 finka emateagatik eta, ehuneko 17,7029an, jatorrizko F finkaren % 69,6266 emateagatik dagokio.

-Gainontzekoa, hau da, 100eko 15,7145a, Promociones Etxeak, S.L.ri, IFK: B-48/872931, helbidea Leioako Negurigane kaleko 12-1 Dn duenari, adjudikatuko zaio.

Partaidetza hau jatorrizko D finkaren % 52,5127 emateagatik dagokio.

Deskribapena:

Lur-zati eraikigarria, forma ia

PARA LA U.E. 27.4-“SAN NIKOLÁS”.

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO.- Aprobar, con carácter inicial y definitivo, la modificación del Proyecto de Reparcelación tramitado para la Unidad de Ejecución 27.4-“San Nikolas”, en lo que se refiere a la Servidumbre de Uso Público Sobre Rasante que pesa sobre la parcela resultante I que, sin previsión en el Plan General de Ordenación Urbana cuya ejecución se pretendía, no debió ser constituida.

Así, la ficha correspondiente a la parcela de resultado I, quedaría en los siguientes términos:

PARCELA RESULTANTE I

Adjudicatario:

-En un 84,2855 por 100 se adjudica a Promociones Etxeak, S.L., C.I.F B-48/872931, con domicilio en Leioa, calle Negurigane nº 12-1 “D”.

Esta participación le corresponde en un 66,5826 por 100 por aportación de la finca de origen E.2 y, en un 17,7029 por 100 por aportación del 69,6266% de la finca de origen F.

-En el 15,7145 por 100 restante se adjudica a Promociones Etxeak, S.L., C.I.F B-48/872931, con domicilio en Leioa, calle Negurigane nº 12-1 “D”.

Esta participación le corresponde por aportación del 52,5127% de la finca de origen D.

Descripción:

Parcela edificable de forma cuasi-

laukizuzena daukana, erabilera komertzialerako eta etxebizitza kolektiboko egoitza erabilerarako. Getxon dago, egoitzarako hiri lurzoruko 27.4 egikaritze unitatean, Hiri Antolaketako Plan Orokorrean.

Guztira 1.147,67 m²ko azalera dauka. Baimendutako gehieneko eraikigarritasuna 1.375,75 m²koa da, honela bananduta:

-Erabilera komertziala 108,80 m²
-Bizileku erabilera 1.266,95 m².

Mugak:

Iparraldean, egikaritze unitatetik kanpo dagoen lurra eta 93. jabe erkidegoa; hegoaldean, II lur-zatia; ekialdean, 93. eta 95. jabe erkidegoak eta "A" lur-zatia; eta mendebaldean, "A" lur-zatia.

Zortasunak:

1.- HORMEN BEHIN-BEHINEKO AINGURAKETEN EDO ORDEZKO INDUSKETAREN ETA ALDAMIOEN ETA SAREEN HEGALKINEN ZORTASUNAK.

Sortzen diren lur-zati berriek, hormen behin-behineko ainguraketen edo ordezko indusketaren eta aldamioen eta sareen hegalkinen zortasuna daukate eratuta beren alde eta aurka (hau da, finka zortasunpekoak eta nagusiak dira aldi berean) plangintzaren egikaritze materialerako, harik eta hormigoizko egitura eraikitzen amaitu arte.

Zortasun horrek 12 metroko sakonera dauka lur-zati osoan zehar.

Zergak:

1.- Hirigintzako Kudeaketa Araudiaren 126. artikuluan eta uztailaren 4ko 1.093/97 Errege Dekretuaren 19. artikuluan xedatutakoarekin bat

rectangular para uso comercial y residencial en vivienda colectiva sita en Getxo, Unidad de Ejecución 27.4 del Suelo Urbano Residencial del Plan General de Ordenación Urbana Municipal.

Tiene una superficie total de 1.147,67 m², con una edificabilidad máxima permitida de 1.375,75 m² distribuida de la siguiente manera:

-Uso comercial 108,80 m²
-Uso residencial 1.266,95 m².

Linderos:

Norte, con terreno sita fuera de la Unidad de Ejecución y con Comunidad de propietarios n^o 93; Sur, con parcela II; Este, con Comunidad de propietarios n^o 93 y 95 y con la parcela "A", y; Oeste, con parcela "A".

Servidumbres:

1.- SERVIDUMBRES DE ANCLAJES PROVISIONALES DE MUROS O DE EXCAVACIÓN SUSTITUTORIA Y DE VUELOS DE ANDAMIOS Y REDES.

Todas las parcelas resultantes tienen constituida a su favor y en contra, es decir, son predios sirvientes y dominantes a su vez, una servidumbre de anclajes provisionales de muros o excavación sustitutoria y de vuelos de andamios y redes para la ejecución material del Planeamiento, hasta la finalización de la construcción de la estructura de hormigón.

Dicha servidumbre tiene una profundidad de 12 mts. a lo largo de toda la parcela.

Cargas:

1.- De conformidad con lo dispuesto en el art. 126 del Reglamento de Gestión Urbanística y el 19 del Real Decreto 1.093/97, de 4 de Julio, queda

etorri, urbanizatzeko betebeharraren eta proiektutik eta hirigintzako legeriatik eratortzen diren gainerako betebeharren afektazioa dago. Afektazioaren pean dagoen finka honen inskripzioan ondokoa agerraraziko da:

a.- Proiektuaren kontuaren behin betiko likidazioaren saldoaren ordainketari lotuta geratzen da finka.

b.- 1.054.105,13 euroko saldoa dagokio hainbanaketako behin-behineko kontuan. Ehuneko 35,6693ko kuota dagokio urbanizazio kostuen ordainketan, ehuneko 39,2959koa erregistroko gastuetan eta beste ordainsari batzuetan, eta ehuneko 31,7054koa kalte-ordainen ordainketan.

2. Uztailaren 4ko 1.093/97 Errege Dekretuaren 11.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorri, Ondare Eskualdaketen eta Dokumentatutako Ekintza Juridikoen Zergatik, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergatik eta Pertsona Fisiko Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergatik likidazio osagarriak egiten bada, jatorrizko finken gainean eskritura publikoetan dauden egintza edo kontratuengatik, ordainketa horien afektazioak planeamenduarekin bateragarriak izango dira. Erregistratzaileak ofizioz eramango ditu, benetako subrogazioz, hirigintzako hipoteka-araudiaren terminoetan, sortu den finka honetara. Afektazio hauek jabetzaren erregistratzaileak egingo ditu, hirigintzako hipoteka araudiarekin bat etorri.

BIGARRENA.- Berariaz agerraraziko da aldaketa honek ukitutako interesdunek eskatu dutela aldaketa; beraz entzunaldi izapidea egitea ez da beharrezkoa.

constituida una afección al cumplimiento de las obligaciones de urbanizar y de los demás deberes dimanantes del Proyecto y la legislación urbanística. En la inscripción de esta finca sujeta a la afección, se hará constar:

a.- Que la finca queda afecta al pago del saldo de la liquidación definitiva de la cuenta del Proyecto.

b.- Le corresponde un saldo de 1.054.105,13 euros en la cuenta provisional de la equidistribución, atribuyéndosele una cuota del 35,6693 por 100 en el pago de los costes de urbanización, del 39,2959 por 100 en los gastos de registro y otros honorarios y un 31,7054 en el pago de las indemnizaciones.

2. De acuerdo con lo establecido en el art. 11.2 del Real Decreto 1.093/97, de 4 de julio, las afecciones al pago de la liquidación complementaria que en su caso se giren del Impuesto de Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, así como del Impuesto de Sucesiones y Donaciones, sobre la Renta de las Personas Físicas no Residentes por los actos o contratos mantenidos en las escrituras públicas sobre las fincas de origen, resultan compatibles con el Planeamiento y el Registrador las trasladará de oficio por subrogación real en los términos del Reglamento hipotecario urbanístico a la presente finca de resultado.

Las presentes afecciones se practicarán por el Sr. Registrador de la propiedad de acuerdo con el Reglamento Hipotecario urbanístico.

SEGUNDO.- Dejar constancia expresa de que los interesados afectados por esta modificación, son quienes la instan, por lo que puede prescindirse del trámite de audiencia.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki oholean eta udalerrri honetan zabaltzen den egunkari batean argitaratzea. Interesatuei banan-banan jakinaraziko zaie.

LAUGARRENA.- Lurra berriro zatitzea onesteko erabakia administrazio bidean irmoa denean, administrazio ziurtagiria berriro emango da, jabetza erregistroan sartzeko.

**89.- LEHENENGO ERABILERA
BAIMENA ESKATUTA, 27.4. SAN
NIKOLAS EGIKARITZE-
UNITATEKO I LURZATIAN, SAN
NIKOLAS KALEKO 3AN
ERAIKITAKO 20
ETXEBIZITZARENTZAT ETA
GARAJEARENTZAT ETA
TRASTELEKUENTZAT EMATEA.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA.- IKER ARRIAGA VIDAURRAZAGA jaunari, "PROMOCIONES ETXEAK, S.L." enpresaren izenean eta beraren orde, eskatu duen lizentzia emango zaio, San Nikolas kaleko 3.ean (27.4 San Nikolas egikaritze unitateko I. lur-zatian) 20 etxebizitza, trastelekuak eta garajeak eraikitzeko obrak lehen aldiz erabiltzeko. Obra horiek egiteko obra lizentzia eman zion Tokiko Gobernu Batzarrak, 297. erabakiaren bidez, 2012-07-10eko batzarrean.

BIGARRENA.- Ekonomia Arloak

TERCERO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia, en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en un periódico de difusión corriente en la localidad, con notificación personal a los interesados.

CUARTO.- Firme en vía administrativa el acuerdo de aprobación de la reparcelación, se procederá a expedir certificación administrativa para su acceso al Registro de la Propiedad.

89.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE PRIMERA UTILIZACIÓN PARA LAS OBRAS DE CONSTRUCCIÓN DE 20 VIVIENDAS, TRASTEROS Y GARAJES EN LA C/SAN NIKOLÁS, 3 (PARCELA I DE LA U.E. 27.4-"SAN NIKOLÁS")

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO.- Conceder a D. IKER ARRIAGA VIDAURRAZAGA, en nombre y representación de la mercantil "PROMOCIONES ETXEAK, S.L.", la licencia solicitada para la primera utilización de las obras de construcción de 20 viviendas, trasteros y garajes en la C/ San Nicolás nº 3 (Parcela I de la U.E. 27.4. San Nicolás), ejecutadas al amparo de la precedente licencia de obras otorgada por Acuerdo de Junta de Gobierno Local nº 297 adoptado en sesión ordinaria celebrada el día 10.07.12.

SEGUNDO.- Por el Área Económica

dagokion likidazioa egingo du, kontuan izanik obraren azken likidazioa 1.226.000,00 eurokoa dela.

será realizada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que la Liquidación Final de Obra asciende a la cantidad de 1.226.000,00 euros.

90.- LEHENENGO ERABILERAKO BAIMENA ESKATUTA, ATXEKOLANDETA KALEKO 20KO BELRESPIRO ETXEA ERABERRITZEKO ETA BIRGAITZEKO EGINDAKO OBRARENTZAT EMATEA.

90.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE PRIMERA UTILIZACIÓN PARA LAS OBRAS DE REFORMA Y REHABILITACIÓN DE LA CASA BELRESPIRO SITA EN LA C/ATXEKOLANDETA, 20.

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

LEHENENGOA.-

PRIMERO.-

I.- FRANCISCO JAVIER CAREAGA GARTEIZ-GOGEASCOA jaunari CASA BELRESPIRO (familia bateko etxebizitza), ATXEKOLANDETA kaleko 20.ean dagoena, berriztatzeko eta birgaitzeko obrak lehen aldiz erabiltzeko lizentzia emango zaio. Obra horiek Tokiko Gobernu Batzarraren 296. erabakiaren bidez baimendu ziren, 2012-07-10eko batzar arruntean emana. Hori guztia aurkeztu den obra amaierako dokumentazioarekin (EHAEOak 2014-04-28an ikusonetsia) eta Udaleko Zerbitzu Teknikoek 2014-09-19an eta 2015-02-11n emandako txostenekin bat etorritz.

I.- Conceder a D. FRANCISCO JAVIER CAREAGA GARTEIZ-GOGEASCOA, licencia de primera utilización para las obras de reforma y rehabilitación de la CASA BELRESPIRO (vivienda unifamiliar), sita en la C/ ATXEKOLANDETA nº 20, autorizadas mediante Acuerdo nº 296 de la Junta de Gobierno Local, adoptado en sesión ordinaria celebrada el 10.07.12. Todo ello a la vista de la documentación final de obra presentada, visada por el C.O.A.V.N con fecha 28.04.14 y de los informes de conformidad que han sido emitido al respecto por los Servicios Técnicos Municipales el 19.09.14 y el 11.02.15.

II. Berariaz jasota geratu da, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 211.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, lizentziak jabetza eskubidea salbu eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango direla.

II. Se hace constar de forma expresa que, de conformidad con lo previsto en el art. 211.2 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, las licencias se concederán a salvo del derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero.

III.- Erabaki hori interesdunei

III.- Notificar este acuerdo a los

jakinaraziko zaie, dagozkion errekurtsoak ere adierazita.

BIGARRENA.- Ekonomia Arloak likidazio egokia egingo du, kontuan izanik obraren azken likidazioa 196.035,42 eurokoa dela.

91.- 2013-12-10EKO TGBREN ERABAKIZ, ZK. 468, EMANDAKO OBRA-BAIMENA ALDARAZITA ONESTEA: KORTIÑE BANAKETA ARLOKO RA-XII.1, RA-XII.2, RA-XII.3 ETA RA-XII.4 PARTZELETAN 32 ETXEBIZITZA ETA ERANTSIKOAK ERAIKITZEA.

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: MURUETXE 1, S.COOP-i eskatu duen aldaketa onartuko zaio, Tokiko Gobernu Batzarrak 2013-12-10eko batzarrean hartutako 468. erabakiz emandako obra lizentziarako, aurkeztutako dokumentazioaren arabera. Aldaketa horren bidez, eraiki beharreko etxebizitza kopurua aldatuko da: 31 izango dira, etxebizitzek osatzen dituzten lau blokeetatik 2. blokeko lehenengo solairuko C eta D etxebizitzak batuko baitira. Gainera, horrela sortuko den etxebizitzaren barne distribuzioa aldatuko da, lizentzia eman zitzaionean ezarri ziren baldintza berberekin.

BIGARRENA: Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, egokiak diren baliabideak adieraziz.

interesados con indicación de los recursos procedentes.

SEGUNDO.- Por el Área Económica será practicada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que la liquidación final de obra asciende a la cantidad de 196.035,42 €.

91.- CONCESIÓN DE LA MODIFICACIÓN DE LA LICENCIA DE OBRAS, OTORGADA POR ACUERDO N° 468, DE JGL DE FECHA 10/12/2013, PARA LA CONSTRUCCIÓN DE 32 VIVIENDAS Y ANEXOS EN LAS PARCELAS RA-XII.1, RA-XII.2, RA-XII.3, RA-XII.4 DEL ÁREA DE REPARTO "KORTIÑE".

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO: Conceder a MURUETXE N° 1, S.COOP, la modificación solicitada de la licencia de obras concedida por acuerdo n° 468, adoptado por la Junta de Gobierno Local en sesión celebrada el día 10.12.13, según documentación presentada, consistente en la modificación del número de viviendas a construir, que pasan a ser 31, al agruparse las viviendas C y D de Planta Primera del bloque 2, de los cuatro bloques en los que se distribuyen las viviendas, así como en la redistribución interior de la vivienda agrupada resultante, con sujeción a las mismas condiciones que le fueron impuestas en su día con la concesión de la licencia.

SEGUNDO: Notificar este acuerdo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

**92.- 51-KORTIÑE BANAKETA
ARLOKO RA-XII.1, RA-XII.2, RA-
XII.3 ETA RA-XII.4 PARTZELETAN
ERAIKITZEN DIREN ETXEBIZITZA-
SUSTAPENeko 2. ERAIKINEKO
LEHENENGO SOLAIRUKO C ETA D
ETXEBIZITZAK BATZEA
BAIMENTZEA.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: "MURUETXE Nº 1 S. COOP."i, IFK: F95726774, baimena emango zaio 2 blokeko lehenengo solairuko C eta D etxebizitzak elkartzeko, Kortiñeko 51. aldeko RA-XII.1, RA-XII.2, RA-XII.3 eta RA-XII.4 lur-zatiak elkartzetik sortzen den finkan egiten ari den sustapenean, eta bi etxebizitza horiek elkartzetik sortzen den etxebizitzaren barrualdea berriro banatzeko, aurkeztu den dokumentu teknikoarekin bat etorriz.

BIGARRENA: Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, egokiak diren baliabideak adieraziz.

HIRUGARRENA: Alkatetza-Udalburutzari, beharrezkoak diren xedapen guztiak egiteko ahalmena ematea erabaki hau egikaritzeko.

**93.- AREETAKO UDAL
MERKATUAREN PARTZELAN
GETXO ELKARTEGIA
ERAIKITZEKO PARATUTAKO
OINARRIZKO PROIEKTUKO
OBRAK EGIKARITZEKO BAIMENA
EMATEKOTAN, JARRITAKO**

**92.- AUTORIZACIÓN PARA
AGRUPAR LAS VIVIENDAS C y D
DE PLANTA PRIMERA, BLOQUE 2,
DE LA PROMOCIÓN QUE SE ESTÁ
DESARROLLANDO EN LAS
PARCELAS RA-XII.1, RA-XII.2, RA-
XII.3, RA-XII.4 DEL ÁREA Nº 51 DE
"KORTIÑE".**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO: Autorizar a "MURUETXE Nº 1 S. COOP.", con C.I.F.: F95726774, para agrupar las viviendas C y D de planta primera del bloque 2, de la promoción que se está desarrollando en la finca resultante de la agrupación de las parcelas RA-XII.1, RA-XII.2, RA-XII.3 y RA-XII.4 del área nº 51 de Kortiñe, y para redistribuir interiormente la vivienda que resulte de la agrupación de esas dos viviendas, de acuerdo al documento técnico presentado.

SEGUNDO: Notificar este acuerdo a la interesada, con indicación de los recursos procedentes.

TERCERO: Facultar a la Alcaldía-Presidencia para dictar cuantas disposiciones sean precisas en orden a la ejecución del presente acuerdo.

**93.- CONCESIÓN DE LA
DEVOLUCIÓN DE LA FIANZA
CONSTITUIDA CON MOTIVO DE
LA LICENCIA DE OBRAS PARA LA
EJECUCIÓN DEL PROYECTO
BÁSICO PARA GETXO
ELKARTEGIA, EN LA PARCELA**

BERMEA ITZULTZEA ONESTEA.

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

JOSEBA RUIZ DE LOIZAGA ISASI jaunari, "AZPIEGITURAK, S.A.U." merkataritzako foru sozietatearen izenean eta beraren ordezkartzan, 3/2010/1/002363 zenbakidun banku-abala itzuliko zaio. Abal hori, 50.581,33 eurokoa, AREETAKO UDAL MERKATUKO PARTZELAN GETXO ELKARTEGIRAKO OINARRIZKO PROIEKTUAN dauden obrak egiteko obra lizentzia jasotzean jarri zuen.

Gai-zerrendaz kanpo, premiazko deklarazioa aurrez eginda, eta "quorum" a zegoela ikusita, apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretuko 51. artikuluan jasota dagoen moduan, ondorengo erabakiak sartu dira:

94.- NEGURI ALDEKO SANEAMENDUKO SAREA HOBETZEKO OBRA-KONTRATUA ALDARAZTEKO ESPEDIENTEA HASTEA.

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENA: Espedientearen hasiera baimentzea eta NEGURI ALDEKO SANEAMENDU-SAREA HOBETZEKO JARDUEREN obrak egikaritzeko kontratuaren aldaketa onartzea. Obra horiek "LUKATEGI GUNIKER, S.L."

DEL MERCADO MUNICIPAL DE LAS ARENAS.

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

Conceder a D. JOSEBA RUIZ DE LOIZAGA ISASI, en nombre y representación de la Sociedad Mercantil Foral "AZPIEGITURAK, S.A.U.", la devolución del aval bancario número 3/2010/1/002363 que, por importe de 50.581,33 euros, fuera constituido al otorgamiento de la licencia de obras para la ejecución de las obras comprendidas en el PROYECTO BÁSICO PARA GETXO ELKARTEGIA EN LA PARCELA DEL MERCADO MUNICIPAL DE LAS ARENAS.

Fuera del Orden del Día, previa declaración de urgencia, y por lo tanto, con el "quorum" prevenido en el artículo 51 del Real Decreto Legislativo 781/86, de 18 de abril, se acordó incluir los siguientes acuerdos:

94.- INICIO DEL EXPEDIENTE PARA LA MODIFICACIÓN DEL CONTRATO DE OBRAS DE MEJORA EN LA RED DE SANEAMIENTO DE LA ZONA DE NEGURI.

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

PRIMERO: Autorizar el inicio del expediente y aprobar la modificación del contrato de ejecución de las obras de ACTUACIONES DE MEJORA EN LA RED DE SANEAMIENTO DE LA ZONA DE NEGURI, adjudicado a la

enpresari (IFK: B-95464061) esleitu zitzaizkion.

empresa "LUKATEGI GUNIKER, S.L.", con C.I.F.: B-95464061.

Kontratuaren aldaketa horren helburua obra egikaritzeko epea lau astera zabaltzea da, hau da, 2015eko apirilaren 7ra arte.

Dicha modificación contractual tiene como objeto la ampliación del plazo de ejecución de la obra en cuatro semanas, es decir, hasta el 7 de abril de 2015.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakariak bilkura egun bereko goizeko bederatziak eta hamabost direnean eman du bukatutzat. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkari Diharduenak, fede ematen dut.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Presidente levantó la sesión siendo las nueve horas y quince minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, la Secretaria Acctal., doy fe.